

**2010EKO OTSAILAREN 26KO UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita seia

HILABETEA: Otsaila

URTEA: Bi mila eta hamar.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatziak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK:

- Aitor Aldasoro Iturbe
- Iñigo Arrese Artabe
- Malu Valles Fernandez
- Arantza Aseginolaza Azkargorta
- Arantza Gibelalde Iñurritegi
- Fernando Boada Gonzalez
- Alfonso Segade Gonzalez
- M^a Pilar Vispo Chamosa
- Ana María Crespo Blanco
- Manuela Uranga Segurola
- Jon Kortaberria Lasa
- Josi Insausti Mujika
- Begoña Lasa Royuela
- Julene Hidalgo Pérez
- Julio Herreros Serna

ETORRI GABEA: Joan Martin Aldaregia Etxebarria

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak ere parte hartu du.

1.- AURREKO AKTA. 2010eko urtarrilaren 29an, egindako ohiko batzaraldiaren aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez akta onartu dute berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- VISESArekin HITZARMENA. VISESArekin sinatutako hitzarmenaren aldaketa.

Alkatea jaunak hirigintza batzordeko proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

I.- Udalbatza Osoak 2010eko abenduaren 18an, ondorengo erabakia hartu zuen, 2008ko martxoaren 26an VISESArekin sinatutako hitzarmenari buruz:

Lehenik. VISESArekin sinatutako hitzarmenaren hirugarren, eta seigarren klausulak aldatzea. Jarraian ondorengo adieraziko dute:

1.- Hirugarren cláusula:

Salerosketaren prezioari dagokionez, bi alderdiek adostu dute honako zenbateko hau finkatzea: 473.208,63 €, gehi dagokion BEZ (75.713,38 €). Guztira, **BOSTEHUN ETA BERROGEITA ZORTZI MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA BI EURO ETA ZENTIMO BAT (548.922,01 €).**

Erosleak, salerosketaren prezioaren printzipala metalikoan eta lokal baten bidez ordainduko du, hau da: 400.000 € metalikoan eta gelditzen dena, 73.208,63 €tan baloratuta dagoen 52,11 m² erabiltzeko dituen lokala entregatuz. Lokal hori besterentzen diren lursail horietako batean eraikiko da.

Metalikoan ordaindu beharrekoa honela egingo da:

a) prezioaren %10a, hau da, 40.000 €, gehi dagokion BEZa, hau da, 46.400 €, Lankidetzaren Hitzarmena hau sinatzen denean, eta ordainketa gutuna emango da.

b) Gelditzen BEZ, hau da, 69.313,38 €, lursailen salerosketa eskritura sinatzerakoan.

c) Printzipalaren gainerako %90a, hau da, 360.000 €, gehi dagokion BEZa babes ofizialeko etxebizitzetarako dagokien Obra Berriaren Adierazpenaren Eskritura Publikoa ematen den egunean.

73.208,63 €tan baloratuta dagoen 52,11 m²ko erabiltzeko azalera duen lokala, Obra Berriaren Aitorpen-eskritura formalizatu ondoren.

3.- Seigarren kláusularen bosgarren lerrokada:

Prezio mugatuko itunpeko 13 etxebizitzak (autonomia-erkidegoko araudiaren arabera erregimen tasatuko etxebizitzak) eta dagokien eranskinen lehen transmisioaren gehieneko prezioa eta betiere eraikuntzako dagokion udal-lizentzia ematerakoan horrelako etxebizitzetarako legeria aplikagarriak xedaturikoa aparte utzi gabe, honela lortuko da: **1,7ko** koefiziente zuzentzailea aplikatuko zaio erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren salmenta-prezio gisa (€/m² erabilgarri) ezarritako indarrean dagoen moduluari).

Bigarren. Erabaki honen berri VISESA Sozietate Publikoari ematea.”

II.- VISESAri plenoko erabakia jakinarazi ondoren, Entitate honek aldaketa berri bat sartzea proposatu du termino hauetan:

“Aldi berean bi aldeek erabakitzen dute, VISESAk ez duela inolako ordainketarik egin behar izango, Agauntza 31 Areako kutxatuta dauden terrenoak berreskuratu eta egokitzeko.

BIGARREN. Hitzarmenaren aipatutako aldaketak argitaratzea, Euskal Herriko Luzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarriaren arabera.”

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio: **VISESArekin sinatutako hitzarmena aldatzea, aurreko bi lerroak gehituz.**”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez ondorengo erabaki hartu da:

Lehenik. 2008ko martxoaren 26an, VISESArekin sinatutako hitzarmenaren aldaketari hasierako onespina ematea eta jendaurrean jartzea hogeitaz laneguneko epean, eduki osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz. Epe horretan ez bada alegaziorik aurkezten, behin betiko onartuko da.

Bigarren. Alkate jaunari baimena ematea, aipatutako hitzarmena sinatzeko. Hitzarmen-aldaketaren testua honelakoa da:

Beasainen 2010eko martxoaren 1ean. Alkatea. Patxi Plazaola Muguruza.

BILDUTAKOAK

ALDE BATETIK, Tomás Ignacio Alonso Sanz jauna, “Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A.- Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A.” (En adelante, VISESA), enpresa publikoaren Zuzendari Orokorra.

ETA BESTETIK, Patxi Plazaola Muguruza, Beasaingo (Gipuzkoa) Alkate-Lehendakaria

AZALDU DIRA

Lehena. Tomás Ignacio Alonso Sanz jauna, VISESAren izenean eta bere ordezkari Sozietate hau mugaezinarik gabe eratu zen, 1990eko otsailaren 12an, Alfredo Pérez Avila Notario jaunaren aurrean. Urte horretako protokolo zenbakia, 331. Egoitza soziala, Vitoria-Gasteizgo Portal Gamarra kalean, 1 zenbakia, 2. oinean dauka. IFK: A-20306775. Gipuzkoako Merkatal Erregistroan, 971 Tomoan, 21. Orrialdean, SS-64 orrian lehengo aldiz inskribatuta dago.

Ekintza honetarako ahalmena, 2009ko abenduaren 3an, Administrazio Kontseiluak harutako erabakiak ematen dio.

1. Eranskin modura, Administrazio Kontseiluko Idazkariak emandako ziurtagiriaren kopia atxikitzen da.

Eta bigarrenak, Patxi Plazaola Muguruza jaunak, Beasaingo Alkate-Lehendakaria denak, Beasaingo Udalaren ordezkariak.

Ekintza honetarako 2010eko otsailaren 26an Udalbatza Osoak hartutako erabakiak ematen dio ahalmena.

2. Eranskin modura, Plenoaren erabakia atxikitzen da.

Bi aldeek ere elkarri aitortzen diote HITZARMEN hau sinatzeko gaitasuna eta horren ondorioz,

AZALTZEN DUTE

I.- 2008ko martxoaren 26ko datarekin, bi aldeek Elkarlenareko-Hitzarmena sinatu zuten, Beasaingo Agauntza 31 Arian, babes ofizialeko etxebizitzak egiteko.

3. Eranskin modura, hitzarmen horren kopia atxikitzen da.

II.- Aipatutako hitzarmen horren helburua honako hau da: sustapen-publiko etxebizitzak egitea, hain zuzen ere, 25 babes ofizialeko etxebizitzak eta 13 prezio-kontzertatutako (prezio tasatua) etxebizitzak Beasaingo Agauntza 31 Arian eraikitzea.

III.- Eraikigarriak diren lursailen prezioa, honela finkatu zen: LAUREHUN MILA EURO (400.000 €) gehi dagokion BEZ.

IV.- Aipatutako hitzarmenean adierazten zen, etxebizitza tasatuen prezioa ondorengo izango zela: babes ofizialeko etxebizitzak salmenta-moduluari, 1,5 koefizientea aplikatuz onduz gero dena.

V.- Dena dela, 2008ko maiatzaren 15eko Agindua adierazten du etxebizitza tasatuen prezioa, babes ofizialeko etxebizitzak salmenta-modulua bider 1,7 koefizientea dela. Hori horrela izanik, bi aldeek 2009ko azaroaren 17ko datarekin izandako bileran

erabaki zuten lehen sinatutako hitzarmena aldatzea, prezioa 73.208,63 € igotzen delako. Prezio honi dagokion BEZ aplikatu behar zaio eta etxebizitza tasatuen prezioa ondorengoa: babes ofizialeko etxebizitzaren salmenta-modulua bider 1,7 koefiziente zuzentzailea (erabilgarria den m²ko).

VI.- Hori horrela izanik, Hirigintza Batzordeak, Udalbatza Osoari honekin batera doan erabaki-proposamena egin zion (**4. zenbakia duen Eranskina**).

Abenduaren 3an, VISESAko Administrazio Kontseiluak, Tomás Ignacio Alonso Sanz jaunari baimena eman zion, aipatutako Hitzarmena termino horietan sinatzeko.

VII.- Aipatutakoa kontuan izanik, bi aldeek iritzia da hobe dela sinatutako Hitzarmena aldatzea eta ondorengoa

ADOSTU DUTE

Lehenik. VISESArekin sinatutako hitzarmenaren hirugarren, eta seigarren klausulak aldatzea. Jarraian ondorengoa adieraziko dute:

1.- Hirugarren cláusula:

Salerosketaren prezioari dagokionez, bi alderdiek adostu dute honako zenbateko hau finkatzea: 473.208,63 €, gehi dagokion BEZ (75.713,38 €). Guztira, **BOSTEHUN ETA BERROGEITA ZORTZI MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA BI EURO ETA ZENTIMO BAT (548.922,01 €)**.

Erosleak, salerosketaren prezioaren printzipala metalikoan eta lokal baten bidez ordainduko du, hau da: 400.000 € metalikoan eta gelditzen dena, 73.208,63 €tan baloratuta dagoen 52,11 m² erabiltzeko dituen lokala entregatuz. Lokal hori besterentzen diren lursail horietako batean eraikiko da.

Metalikoan ordaindu beharrekoa honela egingo da:

a) prezioaren %10a, hau da, 40.000 €, gehi dagokion BEZa, hau da, 46.400 €, Lankidetzaren Hitzarmena hau sinatzen denean, eta ordainketa gutuna emango da.

b) Gelditzen BEZ, hau da, 69.313,38 €, lursailen salerosketa eskritura sinatzerakoan.

c) Printzipalaren gainerako %90a, hau da, 360.000 €, gehi dagokion BEZa babes ofizialeko etxebizitzari dagokien Obra Berriaren Adierazpenaren Eskritura Publikoa ematen den egunean.

73.208,63 €tan baloratuta dagoen 52,11 m²ko erabiltzeko azalera duen lokala, Obra Berriaren Aitorpen-eskritura formalizatu ondoren.

3.- Seigarren kláusularen bosgarren lerrokada:

Prezio mugatuko itunpeko 13 etxebizitzaren (autonomia-erkidegoko araudiaren arabera erregimen tasatuko etxebizitzak) eta dagokien eranskinen lehen transmisioaren gehieneko prezioa eta betiere eraikuntzako dagokion udal-lizentzia ematerakoan horrelako etxebizitzetarako legeria aplikagarriak xedaturikoa aparte utzi

gabe, honela lortuko da: **1,7ko** koefiziente zuzentzailea aplikatuko zaio erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren salmenta-prezio gisa (€/m² erabilgarri) ezarritako indarrean dagoen moduluari).

Bigarren. VISESA, Agauntza 31. Arian kutsatuta dauden terrenoak berreskuratu eta egokitzeko gastuak ordaintzetik espresuki libre egongo da.

Hirugarren. Lehen aipatutako Hitzarmenarekiko egin diren aldaketak argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen Zazpigarren Gehigarri Xedapenaren arabera.

Eta guztiaren adostasun frogatzat, bildutakoek dokumentu hau bikoizturik sinatzen duten, goiburuan adierazitako data eta lekuan.”

3.- ETXEZ ETXKO LAGUNTZA ZERBITUZA. Etxez etxeko laguntza zerbitzua esleitzea.

Ezagutzera eman da 2010eko otsailaren 22an Kontratazio-Mahaiak egindako adjudikazio-proposamena:

“BEASAINGO UDALERRIAN ETXEZ ETXKO LAGUNTZA ZERBITZUA KONTRATAZEKO KONTRATAZIO-MAHAIA.

Beasainen 2010ko otsailaren 22an.

Arratsaldeko bostetan, eratu da KONTRATAZIO MAHAIA, ondorengo kideek osatuta: Lehendakaria, Patxi Plazaola Muguruza, Malu Vallés Fernández (EAJ/PNV), Manoli Uranga Segurota (PSE-EE/PSOE), Josi Insausti Mújica (ALKARBIDE) Begoña Lasa Royuela (EB), Julio Herreros Serna (PP) eta Karmele Elola Loidi (gizarte langilea) bokalak, Lourdes Alegria Lasa kontuhartzailea, eta Itziar Arostegi Apaolaza Idazkaria ekintzaren fede ematen duena.

AURREKARIAK

I.- Udalbatzak 2009ko urriaren 30ean egindako bileran, etxez-etxeko laguntza zerbitzua prozedura irekiaren bidez kontratatzekeo deialdi publikoa egitea erabaki zuen eta horretarako dagozkion baldintza pleguak onartu zituen.

II.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen deialdia 2.009ko azaroaren 6an eta eskaintzak aurkezteko ezarritako epearen barruan GOXARA, S.L., EULEN, S.A., VALORIZA SERVICIOS A LA DEPENDENCIA eta FUNDACIÓN BIZITZEN enpresek aurkeztutako eskaintzak jaso ziren.

III.- Lizitazio prezioa ondorengoia izan zen:

- - Astelehenetik ostiralera: 18,43 €/orduko, BEZ barne.
- - Asteburuak eta jai egunak: 22,12 €/orduko, BEZ barne.

IV.- Baldintza pleguan xedatutakoaren arabera 1. kartazaleko dokumentazioa kalifikatu zen parte hartu zuten lizitatzailer guztiak onartuz. Ondoren, adituen batzordeak, zerbitzua emateko proiektuaren balorazioari ekin zion eta ondorengo puntuaketa eman zen:

	EULEN	GOXARA	BIZITZEN	VALORIZA
PYTO SERVIC: 45	32,63	38,10	23,64	32,30
- Atención 15 p.	10,98 a) Falta derechos y deberes b) Completo c) Falta quien comunica, frecuencia y calendario d) Falta quien resuelve e) Información escasa	12,15 a) Completo b) Falta designación de trabajadora y comunicación. c) Falta folleto explicativo d) Completo e) Información escasa	10,24 a) Falta derechos y deberes. b) Completo. c) Falta calendario, folleto explicativo y teléfono. d) Completo e) Información escasa	10,90 a) Falta principios y deberes b) Completo c) Falta calendario y teléfono. d) Falta quien resuelve e) Información escasa
-Protocolos y Manuales 5p	5 - Completo	5 - Completo	2,5 a) Faltan protocolos	5 - Completo
-Organigrama y Organización 12p	8,40 Coordinador: Trabajador Social (designa) a) Falta cauces de participación y promoción b) Completo	10,2 Coordinador: Trabajador Social y auxiliar de geriatría y clínica (designa) a) Falta promoción b) Completo	5,90 Coordinador: Trabajo Social y Sociología (no designa) a) Falta cauces de participación y promoción. b) Escaso desarrollo de organización de sistema informático.	8,40 Coordinador: Trabajador Social (no designa) a) Falta cauces de participación y promoción. b) Completo
-Seguimiento y Evaluación 10p	7,25 a) Falta seguimiento con familia b) Falta método a familia, auxiliar y ayuntamiento. c) Falta procedimiento de resolución.	8,75 a) Completo b) Falta método a ayuntamiento c) Falta comunicación.	5 a) Falta seguimiento con familia b) No se desarrolla procedimiento de evaluación. Menciona anexo 6 pero no lo incluye. c) Falta registro de	7 a) Falta seguimiento con familia b) Completo c) Falta registro de sugerencias y quejas y procedimiento de resolución.

			sugerencias y quejas y procedimiento de resolución.	
-Otros 3p	1 - Colabora con Asociación Sartu	2 - Colabora con Asociación Nagusilan - Documento de condiciones de prestación del servicio firmado por usuario y aux.	0	1 - Dispone de auxiliar de guardia
GESTION PERSONAL 35	10,20	17,16	17,33	15,94
-Condiciones laborales 10p	2,50 a) Mantiene actuales condiciones. Posibilidad de traslado de puesto de trabajo a víctimas de género. b) Premio al aux. del año. c) Absentismo 6% Proponen primas condicionadas a reducción de absentismo; aspecto no valorado.	4,50 a) Posibilidad de elegir fechas de vacaciones. Flexibilidad y ampliación de días de permiso. b) Obsequio navideño. c) Absentismo 7% Proponen subida salarial condicionada a lograr un nº determinado de horas anuales; aspecto no valorado.	0 a) Mantiene actuales condiciones. b) No indica incentivos. c) No indica absentismo.	3,50 a) Propuesta de contratos indefinidos. b) Asiduidad 100€/año, material escolar 100€/año, ayuda para guarderías 100€/año. c) Absentismo máximo 5%.
-Plan formación y plan mejora 10p	6 a) Formación continuada	6 a) Formación continuada	9 a) Formación continuada b) Formación obligatoria y remunerada.	7 a) Formación continuada b) Más de 50h/año
-Selección personal 10p	1,1 a) Prioriza a personas en	6,66 b) Bolsa propia actualizada,	8,33 a) Prioriza usuarios de	5,44 a) Prioriza personas del

	riesgo de exclusión.	INEM, Langai, Cruz Roja, Colegio Inmaculada de Tolosa, Kutxa Zeharo. c) Incluye cuestionario y criterios	servicios sociales en riesgo de exclusión. b) Selección a través de Langai, INEM y Servicios Sociales. c) Incluye criterios	municipio b) Captación: prensa, asociaciones, S.sociales. c) Incluye cuestionario y criterios
-Personal técnico de apoyo 5p	0,6 - 2 psicólogas al 15% de jornada.	0	0	0
MEJORAS 10	4,25	9,50	1,25	6
-Servicios complementarios 6p	0,5 - Limpieza inicial 10h/año entre todos los usuarios.	6 - Peluquería. - Podología. - Catering a domicilio	0	6 -Servicio de peluquería 15 usuarios/mes - Limpiezas de impacto 160h/año -Ayudas técnicas 1000€/año
-Formación familiares 1,5p	1,5 - 2 charlas al año a familiares de enfermos con alzheimer.	1,5 - Programa con familias tanto a nivel individual como grupal, semestral.	0,5 - Menciona la formación a familiares pero sin ninguna concreción.	0
-Disponibilidad 1,5p	1,5 - Incorporación de alumnos en prácticas.	1,5 - Incorporación de alumnos en prácticas.	0	0
-Certificado Calidad 0,25p	0,25 ISO 9002; ISO 9001:2000. Modelo EFQM	0 Implantación de sistema de calidad en el 2010 si nº de	0,25 ISO 9001:2008	0 -Presenta certificado de calidad a Valoriza Facilites

		horas 25.546 año		S.A.U., no a Valoriza Dependencia S.L.
-Otros 0,75p	0,50 - Menor tiempo puesta en marcha del servicio - Plan de euskaldunización	0,50 - Mejora uso medicación. -Menor tiempo puesta en marcha del servicio.	0,5 -Menor tiempo puesta en marcha del servicio. -Plan de normalización del uso del euskera 2009-12	0
TOTAL	47,08	64,76	42,22	54,24

V.- 2010eko otsailaren 4ean proposamen ekonomikoari buruzko kartazala ireki zen eta aurkeztutakoak honakoak izan ziren:

GOXARA, S.L.: De lunes a viernes en 17,22 €/hora + 1,22 (IVA).
Fines de semana y festivos en 20,67 €/hora + 1,45 (IVA).

EULEN, S.A.: De lunes a viernes en en 17,20 €/hora + 1,20 (IVA).
Fines de semana y festivos en 20,65 €/hora + 1,45 (IVA).

VALORIZA.S.L.: De lunes a viernes en 17,22 €/hora + 1,22 (IVA).
Fines de semana y festivos en 20,67 €/hora + 1,45 (IVA).

BIZITZEN: De lunes a viernes en 17,88 €/hora + 0,00 (IVA)
Fines de semana y festivos en 22,00 €/hora + 0,00 (IVA).

Administrazio baldintza pleguko 3. artikulua adierazten duenaren arabera, proposamenean oinar4rizko prezioa eta BEZ banakatuta adierazi behar da. Aurkeztutako proposamenak agindu hori betetzen dute, baina BIZITZEN FUNDAZIOAK duen giza izaeragatik BEZa salbuetsita dauka.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 1 eta 123 artikuluen arabera, lizitatzaleek balio erantsiaren gaineko zerga ezberdina izateak eta egoera horrek sortu dezakeen diskriminazioa saihesteko, honen kopurua ez da kontutan hartu behar kontratuen esleipenetan irizpide bezala prezioa baloratzen denean.

Guzti horretatik ondorioztatzen da BIZITZEN FUNDAZIOAk aurkeztutako proposamenak eskaintzaren prezioa gaitzen duela, beraz automatikoki baztertua geratzen da Administrazio Publikoetako Kontratuen Araudiaren 84. artikuluen arabera.

Onartutako eskaintzak baloratu ondoren, lortutako puntuazioa honakoa izan da:

	Precio	Proyecto servicio	Proyecto gestión personal	Mejoras	TOTAL
EULEN	10	32,63	10,20	4,25	57,08

GOXARA, S.L.	0	38,10	17,16	9,50	64,76
VALORIZA, S.L.	0	32,30	15,94	6	54,24

Proposamen ekonomikoarekin batera, pleguak lizitatzailerik Txosten Ekonomikoa aurkeztera behartzen ditu eta hauek aztertu ondoren ikusten da GOXARA S.L. enpresak zalantzan jartzen duela zerbitzuaren errentagarritasuna, pleguan azaltzen diren eman beharreko orduen arabera. Enpresari azalpenak eta benetako zerbitzuaren orduen arabera Txosten Ekonomikoa eskatu ondoren, ikusten da enpresaren onura tarte oso baxua dela; gauza bera gertatzen da VALORIZA S.L.ak erantsitako Txostenean.

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak kontratazio organoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. Beasaingo udalerriko etxez etxeko laguntza zerbitzua GOXARA, S.L.ri behin-behinik esleitzea ondorengo prezioan:

- Astelehenik, ostiralera bitarte: 17,22 €/orduko + 1,22 BEZ.
- Asteburuak eta jaiegunak: 20,67 €/orduko + 1,45 BEZ.

Bigarren. Zerbitzua baldintza plegua eta adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintzaren arabera esleitzen da. Epea lau urtekoa izango da eta beste bi urterako luzatu ahal izango da, kontratua sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita. GOXARA, S.L.ek aurkeztutako Memoria ekonomikoa kontratuaren ezinbesteko atala osatuko du.

Hirugarren. Hamabost laneguneko epean behin-behinik esleipena jakinarazten denetik kontatzen hasita, adjudikaziodunak ondorengo dokumentazioa aurkeztuko du:

- 82.976 €ko behin betiko fidantza.
- Eskaini dien hobekuntzak beteko direnari buruzko konpromisoa, dagokien kasuetan, horiek bete behar dituztenen pertsona fisiko edo juridikoak erlazionatuz

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

PP, EB eta ALKARBIDEko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Cuando hemos analizado en el partido la propuesta que se nos trae hemos visto que, salvo error u omisión,

a la FUNDACIÓN BIZITZEN se le retira por superar el precio de licitación. Sin embargo, GOXARA tal y como viene escrito, de lunes a viernes serían 17,22 €/hora + 1,22 de IVA, son 18,44, lo que quiere decir que también se pasa de lo establecido en las Bases. Pensamos que es un error porque si no fuera así se pasaría en un céntimo y también superaría el precio de licitación.

Si nos vamos a la página 8 del informe, se dice: *“Ahora bien, junto con la proposición económica, el pliego obliga a los licitadores a presentar una Memoria Económica y una vez analizadas éstas se observa que GOXARA, S.L. pone en duda la rentabilidad del servicio de acuerdo con las horas a prestar que se derivan del pliego. Requerida la empresa para que aporte una aclaración al respecto y ajuste su Memoria económica a las horas efectivas de servicio, se observa que el margen de beneficio empresarial es muy bajo, cosa que también se desprende de la Memoria que adjunta VALORIZA, S.L.”*. La empresa GOXARA, lleva aquí trabajando cuatro años y el 24 de noviembre da a conocer el resultado deficitario del servicio y solicita se subsane la pérdida económica. La comisión propuso que al año 2008 se le podría adecuar 24.010 € resultante de la diferencia entre la pérdida de horas prevista y las no ejecutadas. Sin embargo, la presidenta de la comisión de bienestar social propone una compensación económica por el desequilibrio económico sufrido por importe de 40.248, 82 € ante la creencia de posible situación de quiebra de la empresa y suspensión del servicio que se viene prestando. En consecuencia, la Mesa de Contratación, a pesar del criterio desfavorable de los técnicos, que se reafirman en su informe y que a su vez informan de que la segunda de las propuestas es totalmente improcedente, somete a la consideración del órgano....Quiere decir que hoy se nos presenta la empresa, que no hace un año se les ha regularizado por importe de 40.248, 82 €, con informe negativo por parte de los técnicos municipales, a un concurso reconociendo que probablemente no va a llegar a cubrir los gastos por los que está presentándose y sin embargo, el Ayuntamiento está decidiendo que se le adjudique a esta empresa porque tal vez luego se lo volveremos a regularizar aunque sea de forma irregular, como se hizo antes.

En la página 9, se dice que se adjudica provisionalmente a GOXARA, y no sabemos si es legal o no el hecho de la adjudicación provisional o tiene que ser ya definitivamente.”

Idazkariak azaldu du Legearen arabera, lehendabizi behin-behineko esleipena egin behar dela eta fidantza eta eskatzen zaion beste dokumentu guztiak aurkeztutakoan behin betiko esleipena egiten dela.

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Nosotros viendo el proceder de la empresa y del Ayuntamiento y de las posibles circunstancias que se puedan dar, no lo vamos a aprobar.”

Malu Valles andreak (EAJ): “Quizás he sido poco didáctica al explicar el tema del IVA. Teniendo en cuenta las diversas asociaciones y empresas

dedicadas al mundo de la dependencia, y que pueden tener la posibilidad de facturar sin IVA, lo que se establece es que, al menos, estén en pié de igualdad y el precio que se toma en consideración es siempre sin el IVA. La FUNDACIÓN BIZITZEN excede el precio base y queda eliminada, porque lo que si se permiten son bajas pero no que se supere el precio de licitación.

En cuanto al acuerdo adoptado anteriormente respecto de la empresa GOXARA, decir que todos somos conscientes de lo que la Ley de Dependencia supuso y de que el Reglamento de Ayuda a Domicilio establecía la posibilidad de suspender el servicio. Estas suspensiones suponían que tras contratar unas horas de servicio podían verse suspendidas por decisión de los usuarios. Esas dos modificaciones han hecho que hoy en día el servicio no sea deficitario, con independencia del nivel de rentabilidad.

Lo que si sorprende a esta concejal es que no haya ninguna consulta. El partido socialista jamás se ha dirigido a mí para solicitarme ni preguntarme nada. Siempre se llega a este pleno para intentar sacar las cosquillas a esta concejal, que es fácil. Evidentemente me puedo equivocar, pero se llega aquí para ver si me equivoco o sé de que va el asunto. Yo creo Fernando que nos conocemos. ¡Pregúntame!. Tienes todo el derecho de pedir información en el Pleno, pero yo pensaba que veníamos a trabajar y no a salir en portadas.”

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “La documentación nos la envían el martes. Ya sé que se ha tratado en comisión de bienestar social. Nuestro grupo se reunió para tratar el tema del Pleno, analizamos la documentación y hoy tenemos que tomar la decisión. Cuando en el anterior Pleno se acordó pagar la diferencia a GOXARA, nosotros pensábamos que probablemente se habría visto perjudicada por la reducción de horas, y que tal vez habría que ver cómo se podría compensar. A nuestro entender no se debía pagar por un servicio no prestado, sino tal vez la fórmula hubiera sido ampliar el servicio a alguien que quizás alguna vez se lo hubiéramos negado al no reunir las condiciones. Lo que teníamos que haber hecho era modificar esas condiciones establecidas en las bases. Con ello cumplíamos los dos objetivos, esto es: que la empresa que se presentara tuviera horas suficientes para que el servicio no fuera deficitario y fuera rentable y que el Ayuntamiento, pagará por servicios prestados y no por horas que no se han dado. Esa fue nuestra argumentación y creemos que también en este momento se podría haber planteado, esto es, modificar el servicio de ayuda a domicilio y hacer que sea más apetecible. De manera que no se de la circunstancia de aprobar ahora un contrato para que dentro de tres meses haya que modificarlo.”

Malu Valles andreak (EAJ): La presidente de la comisión de bienestar social comunicó a sus miembros qué empresas se presentaron a la licitación. El jueves anterior se mandó la comunicación a los concejales y a quienes asisten a la comisión. Ha habido una semana para preguntar y en la comisión

la concejal del partido socialista, no preguntó nada ni presentó objeción alguna, y ahora sorprende vuestra actitud. Nosotros estamos contentos de que la propuesta haya sido la de adjudicar a una empresa de personas de Beasain, que sabemos que responde muy bien en este tipo de servicio y sobre la que nunca hemos tenido ninguna queja. Más allá del dinero, lo que valoramos es el trato delicado hacia las personas usuarias.”

Andoni Antxia jaunak: “Gu ez gaude ados ez formarekin ezta edukiarekin ere. Gure ordezkaria gizarte ongizateko bileretan egoten da eta Idazkaria ez zegoen. Gustatuko litzaike jakitea ea berak zer dioten gai honetan. Guk proposatzen dena zalantzan jartzen dugu. Guretzat ez da egoerarik onena, izan ere euskararen erabilpen plana ez da ziurtatzen eta zerbitzua jasotzen dutenak, adineko jendea denez, euskalduna da.”

Julio Herreros jaunak (PP): “): “Sra. Secretaria, le pido a Vd. que de fe pública de lo que está ocurriendo, que es la participación de la plataforma ilegalizada.

Los exbatasunos solo pueden ir a título personal, participar al final del Pleno, en el apartado de Ruegos y preguntas. Nunca pueden participar como Plataformas o Grupo Político.

Según el art. 88,3 del (ROF) Reglamento de Ordenación y Funcionamiento: el público asistente a las sesiones (Plenos) no podrá intervenir en estos, ni tampoco podrán permitirse manifestaciones de agrado o de desagrado, pudiendo el Presidente (Alcalde) proceder, en casos extremos, a la expulsión del asistente que por cualquier causa impida el normal desarrollo de la sesión. Sin perjuicio de ello, una vez levantada la sesión, la Corporación puede establecer un turno de consultas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal.

El art.228-2 del ROF (Reglamento de Ordenación y Funcionamiento):

Terminada la sesión del Pleno, el Alcalde puede establecer un turno de Ruegos y Preguntas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal. Corresponde al Alcalde ordenar y cerrar este asunto.

Sr. Alcalde, se esta incumpliendo lo establecido en los artículos anteriores, no son cargos públicos, están ilegalizados, no pueden participar en los Plenos. Toda esta movida es ilegal.”

Julio Herreros jaunak (PP): “Yo no comprendo toda está movida. ¿Por qué no pueden hablar en ruegos y preguntas?”.

Alkate jaunak (EAJ): “Julio, me hago responsable”.

Gaia behar adina aztabaidatu ondoren, bozketa eginda eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ, ALKARBIDE, EB, PP)
Aurkako botoak: 5 (PS E-EE/PSOE)
Abstentzioak: 0
Etorri gabea: 1

Horren ondorioz, aldeko botoak aurkakoak baino handiagoak direnez, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

4.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK

Alkate jaunak hitza emanda, Malu Valles andreak gizarte ongizateko batzordeak egindako proposamenaren berri eman du:

a.- Garatze bidean dauden herrialdeekin lankidetzak proiektuak arautzen dituzten oinarriak:

1.- Xedea.

Oinarri hauen xedea, herrialderik txiroenetako biztanleen gizarte- eta ekonomia-egoera garatu eta hobetzeko jarduerak burutzea helburu nagusitzat duten irabazi asmorik gabeko erakundeei diru-laguntzak emateko arauak jartzea da, hala nola, Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeei (GGKE) edo erlijio-kongregazioei, hain zuzen ere beren bitartez elkarlan-programak antolatu eta garatzeko.

2.- Eskatzaileak.

Oinarri hauetan ezarritako diru-laguntzak eskatzeko aukera, nortasun juridikoa izan eta irabazi asmorik ez duten eta deialdi honen xedearekin bat etorrita jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko gobernu kanpoko nortasun juridikodun edozein antolakuntza edo erakunde izan dezake bere egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra Gipuzkoan baldin badu eta, bereziki, Beasaingo herriarekin loturak baldin baditu.

Kontu hauetarako GGKEren ordezkaritza iraunkorra Gipuzkoan dagoela ulertuko da, erakundearen egitura esanguratsuak bertan dituela agiri bidez egiaztatuta. Horrela bada, ordezkaritza iraunkorrak hartuko du eskaera aurkezteko zuzeneko erantzukizuna eta diru-laguntza ematen bazaio, bera arduratuko da hitzarmena sinatzeaz. Halaber, kontabilitatea eraman, dokumentuak izapidetu eta proiektua kudeatu ere, berak egin behar ditu bere Gipuzkoako bulegoetan.

Deialdi honetara biltzeko espresuki baztertuta gelditzen dira Estatuaren, Autonomi Administrazioen, Foru Aldundien eta banketxeen mendeko erakundeak nahiz zerbitzuak.

3.- Hautaketarako irizpideak.

Balorazioan kontuan hartuko dira:

Erakundea:

- a) Beasaindarren partaidetza eta elkarlaguntza aktiboa.
- b) Azken bi urteetan sentiberatze-ekintzaren bat Beasainen egin izana.
- c) Azkeneko bi urteetan Beasaingo gazte laguntzaileak beka-programarako hartu izana.

Proiektua:

- a) Proiektuaren deskribapena.
- b) Eremu geografikoa
 - Giza Garapenaren Adierazlea (GGA) 0,5 baino txikiagoa izatea edo herri indigenak ere egotea.
 - Giza Garapenaren Adierazlea (GGA) 0,5 eta 0,599 bitartekoa izatea.
 - Giza Garapenaren Adierazlea (GGA) 0,6 eta 0,699 bitartekoa izatea.

*GGA: Hiru parametroz osaturiko gizarte-adierazlea: bizitza luze eta osasungarria, Hezkuntza eta Garapenerako Nazio Batuen Programak ezarritako bizitzeko baldintzen maila.

c) Hondamenezko gertaerak jasan dituzten herrialdeetan, kalteei aurre egiteko proiektuak izatea.

- d) Giza eskubide, prestakuntza, sanitate eta ekoizpen arloetako proiektuak izatea.
- e) Haur, emakume edo/eta ezgaitasuna duten pertsonentzako proiektuak izatea.
- f) Lankidetzaproiektuetako zikloetan generoaren ikuspegia sartzen duten proiektuak izatea.
- g) Erakunde berak edo eta beste erakunden batek lagundutako proiektuak.

4- Hitzarmena egitea.

Udalak hitzarmenak sinatuko ditu diru-laguntzak jasoko dituzten erakundeekin beren legezko ordezkarien bitartez eta, hitzarmen horiek, atal hauek izango dituzte:

- Garatu behar den jardueraren edo programaren xedea.
- Diru-laguntzaren zenbatekoa.
- Jasotako diru-laguntza zuritzeko era eta epea.
- Garatutako programari buruzko txostenak eta memoria egin beharra.
- Kanpo-proiektzioa duten jardueretan edo programetan, Beasaingo Udalaren lankidetzagerian jarriko da, haren izena eta logotipoa barne direla.

5.- Eskaerak. Agiriak.

Eskaerak Udaletxean aurkeztu behar dira, honako agiri hauekin batera:

- Eskaerari dagokion inprimaki ofiziala, erakunde sinatzailearen ordezkari izateko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatua.

- Laguntzea eskatzen den proiektu edo egitarauaren txosten zehatza. Txostena, 1990. urtean Beasaingo Udalak onartutako Euskararen Udal Ordenantzaren 15. artikuluari jarraiki, gutxienez ere euskaraz idatzita egon beharko du edota euskaraz eta gaztelaniaz eta gutxienez ere honako atalak adierazi beharko ditu zehatz-mehatz: bideragarritasuna, iraunkortasuna eta aurreikusitako sarrera eta gastuen aurrekontua. Nolanahi ere, espresuki aipatu behar dira beste herri-erakunde nahiz erakunde pribatuen eskutik jasotako laguntzak zeintzuk eta zenbatekoak diren, erakunde hartzailearen informazio zehatza, ekintza gauzatzeko egutegia eta baloratuak izatea nahi diren bestelako arlo guztien ziurtagiriak.

- Erakunde eskatzailearen estatutuak. Estatutuak, diru-laguntza lehenengo aldiz eskatzen duten erakundeek eta estatutuetan aldaketaren bat egin duten erakundeek bakarrik aurkeztu beharko dituzte.

-Sinatzailea erakunde eskatzailearen ordezkari dela egiaztatzen duen agiria.

-Elkarteen Erregistroko inskripzioaren kopia.

-Eskatzailea, diru-laguntzaren onuradun-izaera lortzeko azaroaren 17ko 38/2003 legeko 13. artikulua adierazitako debekuetan sartuta ez egotearen erantzukizuneko aitortpena.

-Zergen eta Gizarte Segurantzako kuoten ordainketetan egunera egotearen ziurtagiriak.

6.- Eskaerak aurkezteko epea.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak eskuratzeko eskaerak, 20 eguneko epean aurkez daitezke, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.

Eskaerak, Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate Sailari egingo zaizkio eta Udaletxeko Harrera-, Informazio- eta Erregistro-bulegoan aurkeztu beharko dira 8:30etik 13:30era bitartean edota Herri Administrazioen eta Administrazio Jardunbide Orokorrari buruzko 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetan.

Udalak ikusiko balu, eskatzaileak aurkeztutako agiriak proiektuan azaldutakoak baino gutxiago direla edo osatu gabeak direla, 10 eguneko epea emango dio falta direnak aurkezteko edo osatu gabeak osatzeko. Epe hori amaitzen denean huts horiek zuzendu ez badira, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

Epez kanpo aurkeztutako eskaerak eta berarekin batera jasotzen diren agiriak, zuzenean artxibatu egingo dira.

7.- Proposamenak egin eta ebatzea.

Eskatutako agiriak aurkeztu ondoren HEGOAK (Nazioarteko garapenari eta Lankidetzari buruzko azterlanen Institutoa) aztertu eta ebaluatuko ditu aurkeztutako proiektuak, ondoren udal txosten teknikoa egingo da eta Alkatetzari aurkeztuko dio proposamena, honek gaia ebatz dezan.

8.- Erakunde eskatzaileari jakinarazteko epea.

Alkatetzak emandako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaio diru-laguntza eskatu duen erakunde orori, gehienera ere eskaerak aurkezteko epea amaitu eta 6 hilabetera.

Ebazpenarekin batera, diru-laguntza ematen den kasuetan, hitzarmena ere bidaliko da. Jakinarazpena jaso eta gehienera ere 20 eguneko epean, hitzarmena behar bezala bete eta sinatuta Udalari itzuli behar zaio.

9.- Ordaintzeko modua.

Diru-laguntzaren % 100a, hitzarmena sinatu eta ondorengo bi hilabeteetan ordainduko da.

10.- Diru-laguntza egiaztatzea.

Erakunde onuradunek ondoren aipatuko diren agiriak aurkeztu beharko dizkiote Udalari:

1. Programa burutzeko arduradun izendatutako pertsonari diru guztia, % 100, transferitu izanaren froga-agiria. Froga-agiri horretan, garbi azaldu beharko du bidalitako dirua zehazki Beasaingo dela.

2. Beasaingo Udalak helaraziko duen ereduan, burututako programari edo jarduerari buruzko memoria xehea, gastuen zerrenda zehaztua eta dagozkion fakturak edo agiriak sartuta. Memoria gutxienez ere euskaraz idatzita egon beharko du.

3. Lortutako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideek finantzatzekoak ziren jardueren kostuak gainditzen ez dituzten erantzukizuneko aitorpena.

4. Helburu berdinerako beste laguntzarik jaso ez izanaren ziurtagiria edo, bestela, bereziki ze laguntza jaso diren adierazten duena.

11.- Egiaztatzeko epea.

Aurreko artikuluan eskatutako agiriak, laguntza jasotako hurrengo urteko otsailaren azkeneko laneguna amaitu baino lehen aurkeztu beharko dira.

12.- Betebeharrak ez betetzea.

Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharretakoren bat ez betetzeak erabakia berrikustea ekarriko du eta, hala behar izanez gero, emandako diru-laguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

b.- Beasaingo gazte laguntzaileentzat bekak.

1.- Xedea

Oinarri hauen xedea, Beasaingo gazteak beharrik handiena duten herrialdeetan garapeneko lankidetzak-ekintzetarako sentiberatzea eta gazteen artean herrialdeen eta kulturen elkartasun-baloreak sustatzea da. Horretarako, aukeratutako pertsona gazteek, herrialde horietan zuzenean parte hartzen dute garapeneko lankidetzak-ekintzetan EAEko GGKE baten bidez gutxienez ere hilabete bateko denboraldia eginez eta horrek bide ematen die egoera tokian ezagutzeko.

2.- Diru-laguntza ematen zaien gastuak.

Beasaingo Udalak, jarduera burutu behar den tokian Gobernu Kanpoko Erakundeekin harremanetan jartzeko egin behar duten bidaiaren joan-etorri gastuak ordaindu ahal izango ditu, herrialde hartara joateko behar den bisatua eta sartzeko edota irteteko zergak barne eta baita hautatutako parte-hartzaileetako bakoitzaren gaixotasun eta istripuetarako aseguruak, ostatu-gastuak eta mantenuarenak ere.

Gehienera 3.000 €-ko diru-laguntza onartuko da pertsonako.

3.- Eskatzaileak.

Programa honetan parte hartzeko, gazteek, eskaera egin aurretik gutxienez ere 18 urte beteak izan behar dituzte, gutxienez ere urte bete lehenagotik Beasainen erroldatuta egon behar dute eta ezein GGKEekin ere lan-harremanik ez dute izan behar.

4.- Hautaketarako irizpideak.

Hautagaiak aukeratzeko orduan hurrengo arloak hartuko dira kontuan:

- a) Jarduera burutu behar den herrialdeko hizkuntza ezagutzea.
- b) Kasu bakoitzean egokienak diren eskola-agiriak (tituluak) edo lanbide-prestakuntza izatea, edota behar diren espezialitateak ikasten ari direla ziurtatzea.
- c) Lan-egitasmoa.
- d) Garapenerako lankidetzarekin zerikusia duten eskarmentuak eta ezagutzak izatea.
- e) Gobernu Kanpoko Erakunderen bateko partaide izatea.
- f) Gazte-elkarte bateko zein gizarte-helburuak dituzten beste erakunderen bateko kide izatea.
- g) Euskararen ezagutza.

5.-Eskaerak. Agiriak.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskaerari dagokion inprimaki ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.
- NAREN fotokopia.
- Curriculum Vitae-a: Laneko bizitzaren txostena (Gizarte Segurantzak emana), agertu nahi diren merituak ziurtatzeko agiriak (agiri bidez ziurtatzen diren merituak bakarrik hartuko dira kontuan).
- Tokiko erakunderen baten abala (ekintza burutu behar den herrialdekoa) delako GGKE hori han burutzen ari den ekintzetan pertsona horrek parte har dezakeela adierazten duena eta lan-egitasmoa edo lagunduko duen ekintzen profila.

- Jarduera burutzeko aurreikusitako gastuen aurrekontu zehatza:

- Bidaiaren gastua: (hegazkina+bisatua+zergak)
- Aseguru-polizaren gastuak
- Beste gastu batzuk: osasun-, ostatu- eta mantenu-gastuak eta sentiberatze-jarduera antolatze gastuak (argazkiak...)

6.-Eskaerak aurkezteko epea.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak eskuratzeko eskaerak, apirilaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira.

Eskaerak, Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate Sailari egingo zaizkio eta Udaletxeko Harrera-, Informazio- eta Erregistro-bulegoan aurkeztu beharko dira 8:30etik 13:30era bitartean, Herri Administrazioen eta Administrazioako Jardunbide Orokorrari buruzko 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan.

Udalak egiaztatuko balu, eskatzaileak aurkeztutako agiriak proiektuan azaldutakoak baino gutxiago direla edo osatu gabeak direla, 10 eguneko epea emango dio falta direnak aurkezteko edo osatu gabeak osatzeko. Epe hori amaitzen denean huts horiek zuzendu ez badira, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

Epez kanpo aurkeztutako eskaerak eta haiekin batera jasotzen diren agiriak, zuzenean artxibatu egingo dira.

7.-Proposamenak egin eta ebatzi.

Eskatutako agiriak aurkeztu ondoren Gizarte Ongizateko batzordeak txosten bat egingo du jasotako eskaerei buruzko iritziekin eta Alkatetzari aurkeztuko dio hark ebatz dezan.

Beharrezkoa ikusi ez gero, Batzordeak elkarrizketa bat egin diezaieke eskatzaileei aurkeztutako agiriez informazio gehiago biltzeko.

8.-Pertsona eskatzaileei jakinarazteko epea.

Alkatetzak emandako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaie diru-laguntza eskatu duten pertsona guztiei, beranduenera ere eskaerak aurkezteko epea amaitu eta 6 hilabeteko epean.

9.-Diru-laguntza jaso ahal izateko bete beharko diren baldintzak.

Ebazpenean bertan jakinaraziko zaie onuradunei diru-laguntza jaso ahal izateko baldintza hauek bete beharko dituztela:

- a) Esleitutako jarduerak eskatzen duen bizimodura moldatzea.
- b) Jarduera egin behar den Herrialdean, ekintza bukatu arte irautea, gutxienez hilabete bat.
- c) Proposatutako denboraldirako istripu eta gaixotasunen aseguru-poliza bat kontratatzea.
- d) Osasunari dagokionez emandako aholku guztiak betetzea.

e) Eskarmentu-aldia bukatu ondoren, bertan egindako lanaren memoria, irudiz osatua aurkeztea eskatzen da, eta baita ere Beasainen antolatuko den sentiberatze-jarduera antolazea urriko lehenengo ostiralean beste gazte laguntzaileekin batera. Memoria gutxienez ere euskaraz idatzita egon beharko du.

f) Helburu berdinerako beste laguntzarik jaso ez izana ziurtatzea edo bereziki zer laguntza jaso diren adieraztea.

10.-Ordaintzeko modua.

Ordainketa gastuen fakturak edo agiriak aurkeztutakoan egingo da, beti ere, diru-laguntza onartu den urteko azaroaren 30a baino lehen.

Hegazkina, bisatua eta aseguru-polizaren gastuak, bidaia egin aurretik ordaindu ahal izango dira, baina beste gastu guztiak, aurreko artikuluan ezartzen diren baldintzak bete ondoren ordainduko dira.

11.-Betebeharrak ez betetzea.

Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharretakoren bat ez betetzeak erabakia berrikustea ekarriko du eta, hala behar izanez gero, emandako diru-laguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

c.- Ekintza gizatiarrentzako larrialdietarako laguntzak.

1- Xedea

Oinarri hauen xedea ekintza gizatiarretarako proiektuei laguntza ematea da baldin eta hondamendi naturalek, gatazka armatuek edo antzeko gertaeraren batek eragindako larrialdian edo hondamendian dauden pertsona eta erkidegoentzako badira. Ekintzak beharrean daudenek dituzten beharren arabera gauzatuko dira eta alde batera utziko dira irizpide politikoak, interes ekonomikoak edo arraza, etnia, nazionalitate, erlijio, sexu, adin edo pentsamolde politikoa dela eta egin litezkeen baztertze ezkor guztiak.

2.- Eskatzaileak.

Oinarri hauetan ezarritako diru-laguntzak eskatzeko aukera, nortasun juridikoa izan eta irabazi asmorik ez duten irabazi asmorik gabeko gobernu kanpoko nortasun juridikodun edozein antolakuntza edo erakundek izan dezake, hala nola Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek (GGKE) edo erlijio-kongregazioek deialdi honen xedearekin bat etorrita jarduerak egiten badituzte eta beren egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra Gipuzkoan baldin badute, bereziki, Beasaingo herriarekin loturak baldin badituzte.

Kontu hauetarako GGKEren ordezkaritza iraunkorra Gipuzkoan dagoela ulertuko da, erakundearen egitura esanguratsuak bertan dituela agiri bidez egiaztatuta. Horrela bada, ordezkaritza iraunkorrak hartuko du eskaera aurkezteko zuzeneko erantzukizuna eta diru-laguntza ematen bazaio, bera arduratuko da hitzarmena sinatzeaz. Halaber, kontabilitatea

eraman, dokumentuak izapidetu eta proiektua kudeatu ere, berak egin behar ditu bere Gipuzkoako bulegoetan.

Deialdi honetara biltzeko espresuki baztertuta gelditzen dira Estatuaren, Autonomi Administrazioen, Foru Aldundien eta banketxeen mendeko erakundeak nahiz zerbitzuak.

3.- Eskaerak. Agiriak.

Eskaerak Udaletxean aurkeztu behar dira, honako agiri hauekin batera:

- Eskaerari dagokion inprimaki ofiziala, erakunde sinatzailearen ordezkari izateko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatua.

- Laguntzea eskatzen den proiektu edo egitarauaren txosten zehatza. Txostena, 1990. urtean Beasaingo Udalak onartutako Euskararen Udal Ordenantzaren 15. artikuluari jarraiki, euskaraz idatzita egon beharko du edota gutxienez ere euskaraz eta gaztelaniaz

- Erakunde eskatzailearen estatutuak. Estatutuak, diru-laguntza lehenengo aldiz eskatzen duten erakundeek eta estatutuetan aldaketaren bat egin duten erakundeek bakarrik aurkeztu beharko dituzte.

- Sinatzailea erakunde eskatzailearen ordezkari dela egiaztatzen duen agiria.

- Elkarteen Erregistroko inskripzioaren kopia.

- Eskatzailea, diru-laguntzaren onuradun-izaera lortzeko azaroaren 17ko 38/2003 legeko 13. artikulua adierazitako debekuetan sartuta ez egotearen erantzukizuneko aitortpena.

- Zergen eta Gizarte Segurantzako kuoten ordainketetan egunera egotearen ziurtagiriak.

4.- Eskaerak aurkezteko epea.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak eskuratzeko eskaerak, urriaren 29a baino lehen aurkeztu beharko dira.

Eskaerak, Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate Sailari egingo zaizkio eta Udaletxeko Harrera-, Informazio- eta Erregistro-bulegoan aurkeztu beharko dira (8:30etik 13:30era bitartean, ekainetik iralera izan ezik, hil horietan harrera-ordutegia 8:00etatik 13:00etara izango baita) edota Herri Administrazioen eta Administrazio Jardunbide Orokorraren 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeko 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetan.

Udalak ikusiko balu, eskatzaileak aurkeztutako agiriak proiektuan azaldutakoak baino gutxiago direla edo osatu gabeak direla, 10 eguneko epea emango dio falta direnak aurkezteko edo osatu gabeak osatzeko. Epe hori amaitzen denean huts horiek zuzendu gabe baleude, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

Eskaerak irizpide hauek kontuan izanda ebatziko dira:

- Larrialdiak edo hondamendiak eragindako kaltetuen kopurua
- Laguntza jasoko duten pertsona kopurua

- Premia-premiazko ekintzetarako (ura, janaria, jantzia eta etxebizitza)

5.- Proposamenak egin eta ebatzea.

Eskatutako agiriak aurkeztu ondoren Gizarte Ongizate batzordeak txosten bat egingo du jasotako eskaerez eta proposamena egingo dio Alkatetzari hark ebatz dezan.

6.- Erakunde eskatzaileari jakinarazteko epea.

Alkatetzak emandako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaio diru-laguntza eskatu duen antolakuntza orori, beranduenera ere eskaerak aurkezteko epe-amaieratik zenbatutako 6 hilabeteko epean.

7.- Ordaintzeko modua.

Diru-laguntzaren % 100a, ebazpen-datatik zenbatutako ondorengo bi hilabeteen barruan ordainduko da.

8.- Diru-laguntza egiaztatzea.

Erakunde onuradunek ondoren aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dizkiote Udalari:

1. Programa burutzeko arduradun izendatutako pertsonari diru guztia, % 100, transferitu izanaren froga-agiria.

2. Burututako programari edo jarduerari buruzko memoria xehea. Memoria gutxienez ere euskaraz idatzita egon beharko du.

3. Lortutako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideek finantzatzekoak ziren jardueren kostuak ez dituztela gainditzen adierazten duen erantzukizuneko aitortpena.

4. Helburu berdinerako beste laguntzarik jaso ez izanaren ziurtagiria, edota bestela, adierazi bereziki zer laguntza jaso diren.

9- Egiaztatzeko epea.

Aurreko artikuluan eskatutako agiriak, diru-laguntza jasotako urtearen hurrengo urteko otsailaren azkeneko laneguna amaitu baino lehen aurkeztu beharko dira.

10- Betebeharrak ez betetzea.

Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharretakoren bat ez betetzeak erabakia berrikustea ekarriko du eta hala behar izanez gero, emandako diru-laguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

d.- Sentiberatze proiektuak eta garatze bidean dauden edo zoritxarren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurren denboraldirako harrera programak.

1.-Xedea.

Oinarri hauen xedea, Beasainen proiektuak eta jarduerak burutzeko laguntzak arautzea da. Proiektuak, munduan dauden desberdintasunezko harremanen aurrean elkartasuna eta espiritu kritikoa sustatzeko, nazioarteko elkartasun eta garapenerako lankidetzan prestatzeko, elkartasun edo garapenerako lankidetzak gaitzat duten argitalpenak bultzatzeko eta garatze bidean dauden edo zoritxarren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurren harrera-programak bultzatzeko izan behar dute. Erakusketak eta hitzaldiak antolatzeagatik ez da dirulaguntzarik emango eta proposatzen diren ekintza berritzaileek izango dute lehentasuna.

2.- Eskatzaileak.

Oinarri hauetan ezarritako diru-laguntzak eskatzeko aukera, nortasun juridikoa izan eta irabazi asmorik ez duten eta deialdi honen xedearekin bat etorrita jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko gobernu kanpoko nortasun juridikodun edozein antolakuntza edo erakunde izan dezake bere egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra Gipuzkoan baldin badu eta, bereziki, Beasaingo herriarekin loturak baldin baditu.

Kontu hauetarako GGKEren ordezkaritza iraunkorra Gipuzkoan dagoela ulertuko da, erakundearen egitura esanguratsuak bertan dituela agiri bidez egiaztatuta. Horrela bada, ordezkaritza iraunkorrak hartuko du eskaera aurkezteko zuzeneko erantzukizuna eta diru-laguntza ematen bazaio, bera arduratuko da hitzarmena sinatzeaz. Halaber, kontabilitatea eraman, dokumentuak izapidetu eta proiektua kudeatu ere, berak egin behar ditu bere Gipuzkoako bulegoetan.

Deialdi honetara biltzeko espresuki baztertuta gelditzen dira Estatuaren, Autonomi Administrazioen, Foru Aldundien eta banketxeen mendeko erakundeak nahiz zerbitzuak.

3.- Eskaerak. Agiriak.

Eskaerak Udaletxean aurkeztu behar dira, honako agiri hauekin batera:

- Eskaerari dagokion inprimaki ofiziala, erakunde sinatzailearen ordezkari izateko legeko gaitasuna duen pertsonak sinatua.

- Laguntzea eskatzen den proiektu edo egitarauaren txosten zehatza. Txostena, 1990. urtean Beasaingo Udalak onartutako Euskararen Udal Ordenantzaren 15. artikuluari jarraiki, euskaraz idatzita egon beharko du edota gutxienez ere euskaraz eta gaztelaniaz eta proiektua edo programa bera burutzeko aurreikusitako diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua lagun izan beharko du egikaritze-egutegiarekin batera.

- Erakunde eskatzailearen estatutuak. Estatutuak, diru-laguntza lehenengo aldiz eskatzen duten erakundeek eta estatutuetan aldaketaren bat egin duten erakundeek bakarrik aurkeztu beharko dituzte.

- Sinatzailea erakunde eskatzailearen ordezkari dela egiaztatzen duen agiria.

- Elkarteen Erregistroko inskripzioaren kopia.

- Eskatzailea, diru-laguntzaren onuradun-izaera lortzeko azaroaren 17ko 38/2003 legeko 13. artikulua adierazitako debekuetan sartuta ez egotearen erantzukizuneko aitortpena.

Zergen eta Gizarte Segurantzako kuoten ordainketetan egunera egotearen ziurtagiriak.

4.- Eskaerak aurkezteko epea.

Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak eskuratzeko eskaerak, 20 eguneko epean aurkez daitezke, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.

Eskaerak, Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate Sailari egingo zaizkio eta Udaletxeko Harrera-, Informazio- eta Erregistro-bulegoan aurkeztu beharko dira 8:30etik 13:30era bitartean edota Herri Administrazioen eta Administrazio Jardunbide Orokorrari buruzko 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetan.

Udalak ikusiko balu, eskatzaileak aurkeztutako agiriak proiektuan azaldutakoak baino gutxiago direla edo osatu gabeak direla, 10 eguneko epea emango dio falta direnak aurkezteko edo osatu gabeak osatzeko. Epe hori amaitzen denean huts horiek zuzendu ez badira, eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

Epez kanpo aurkeztutako eskaerak eta berekin batera jasotzen diren agiriak ere, zuzenean artxibatu egingo dira.

5.- Proposamenak egin eta ebatzea.

Eskatutako agiriak aurkeztu ondoren Gizarte Ongizate batzordeak txosten bat egingo du jasotako eskaerei buruz eta proposamena egingo dio Alkatetzari gaia ebatz dezan.

6.- Erakunde eskatzaileari jakinarazteko epea.

Alkatetzak emandako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaio diru-laguntza eskatu duen erakunde orori, gehienera ere eskaerak aurkezteko epea amaitu eta 6 hilabeteko epean.

7.- Ordaintzeko modua.

Diru-laguntzaren % 100a, beranduenera ere, ebazpena emandako datatik zenbatutako 2 hilabeteko epean ordainduko da.

8.- Diru-laguntza zuritzea.

Erakunde onuradunek ondoren aipatuko diren agiriak aurkeztu beharko dizkiote Udalarri:

1. Burututako programari edo jarduerari buruzko memoria xehea, gastuen zerrenda zehaztua dagozkion fakturak edo agiriak sartuta. Memoria gutxienez ere euskaraz idatzita egon beharko du.

2. Lortutako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideek finantzatzekoak ziren jardueren kostuak gainditzen ez dituzten erantzukizuneko aitortpena.

3. Helburu berdinerako beste laguntzarik jaso ez izanaren ziurtagiria edo bestela adierazi bereziki zer laguntza jaso diren.

9.- Egiaztatzeko epea.

Aurreko artikuluan eskatutako agiriak, beranduenera ere, laguntza jasotako urtea amaitu baino lehen aurkeztu beharko dira.

10.- Betebeharrak ez betetzea.

Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharretakoren bat ez betetzeak erabakia berrikustea ekarriko du eta, kasua bada, emandako diru-laguntza deuseztatzea, gutxitzea edo itzularaztea.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

5.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA. EUDELeko adierazpen instituzionalari atxikitzea Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta.

Ondorengo adierazpenaren berri eman da:

“2010EKO MARTXOAREN 8KO ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN EREDUA

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Gaur egungo testuinguru sozial eta politikoan, gero eta ahots gehiagok aldarrikatzen dute gazteen protagonismo handiagoa eman behar zaiela politika publikoen eraikuntzan, agente aktibo eta onuradun gisa. Etorkizunerantz aurrera egitea, etorkizuneko giltzarri direnen eskutik. Etorkizun horretan emakumeen protagonismoa ere bultzatu nahi da herritartasunaren gauzapenean; horren haritik, Institutioak, eta horien artean Udalak, dagoeneko zenbait urte daramatzagu lanean herritarren, batez ere emakumeen, berdintasun eskariei erantzun nahian, eta, ahalegin ez gutxirekin, emaitza nabarmenak lortu ditugu zentzu horretan.

Emakume gazteen kasuan, zeintzuek etorkizun hurbilean oinarritzko protagonista izateko erronka bikoitza baitute, beraien aurrekariak egindako lana aurrerapen eta bultzada handia da egiteko horretan. Dena dela, errealitate berri bati egin behar diote aurre; izan ere, desberdintasunaren adierazpenak, sarritan, zorrotzagoak dira, eta itxuraz berdintasunean oinarritutako errealitatea bizi dute.

Nerabezaroan egindako ikerketek¹ jokabide sexistak erakusten dituzte, bai eta nerabeen artean berdintasun urriko ohiko rolak daudela ere; era berean, eraso matxistek gora egin dutela edo horiek horrela identifikatzeko zailtasunak daudela ere erakusten dute. Hain zuzen ere, hori egiaztatu da azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta Euskadiko zenbait herritan egindako ikerketan. Ikerketan, gazteen partaidetza eta protagonismoa izan da ardatz nagusia.

Hori guztia dela eta, 2010eko martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean,

JAKINIK Udalek daukagun erronka gazteen artean desberdintasuna eragiten duten erak identifikatu eta horien aurka egitea ahalbidetuko duten komunikazio-bideak ezartzea dela, bai eta euren esku baliabideak uztea eta jabekuntza ahalbidetzea ere,

ADIERAZTEN DUGU emakume eta gizonen eskubideak oso-osorik eta berdin-berdin bermatu behar direla, eta bizitzan hain garrantzitsua den garai hori landu behar dela, gizon eta emakumeen arteko jarrera positibo eta berdintasunezkoak finkatzeko, betiere, emakumeek berdintasunean oinarrituta gauza dezaten beraien herritartasuna.

Eta, horretarako, orain inoiz baino gehiago, **KONPROMISOA HARTZEN DUGU** berdintasunaren aldeko eta indarkeriaren aurkako tokiko politikak sendotzeko, bereziki neska gazte eta nerabeei begira, euren partaidetza aktiboa sustatuz helburu hauen lorpenerako.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

6.- MOZIOA. Alkateak aurkezten duen mozioa, Beasaingo eskola publikoaren fusio-proposamenari buruz.

Alkateak, Alkartasuna Lizeoko Gurasoen Elkartearen ordezkaria den, Rakel Barcenilla Mintengi andreari, hitza eman dio eta honek ondorengo testua irakurri du:

“Beasaingo eskola publikoan Hezkuntza Sailak proposatzen duen fusio prozesuaren aurrean Alkartasuna Lizeoko Guraso Elkarteak, guraso garen aldetik, gure seme-alabekin dugun erantzunkizunaren aurrean,

Beasaingo herritarrek garen aldetik, Udalbatzari babesa eta ahal duen neurriko esku hartzea eskatzen dugu honako helburua hauetarako:

1.- Beasaingo hezkuntza publikoaren korapiloa askatzeko, arrazoiak eta argudioak erabiliz, parte hartzeko aukera izatea; aurrez erabakirik eta epe hesturik jarri gabe, akordioaren eta kontsentsuaren bidea bilatuz, gurasook gure seme-alabekin ditugun betebeharrak betetzeko aukera izatea.

2.- Hezkuntza publikoak Beasainen duen hezkuntza komunitatearen adostasuna bilatu, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen bizikidetza Planaren eredu baikorra erabiliz, elkarbizitza demokratikoa garatuz eta giza eskubideen defentsa bermatuz.

3.- Gaiak duen garrantzia kontuan izanik eta aurreko guztia lortu ahal izateko, azken erabakia hartzeko epea urte bete atzeratzea.

Azkenik, Udalaren erabakiaren berri Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuari jakin araztea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Julio Herreros jaunak (PP): “No me parece mal la moción. No obstante, me he puesto en contacto con mi grupo parlamentario, y me ha dado el apoyo para votar a favor”

EBko ordezkaria ere mozioarekin ados azaldu da.

Josi Insausti (ALKARBIDE): “Estamos ante un texto presentado por la Asociación de Padres del Liceo Alkartasuna a los cuales les hemos comunicado cuál es nuestro sentir al respecto. Entendemos que puede resultar sumamente peligroso la politización de este asunto desde el momento en que se traslada al Pleno de este Ayuntamiento y se pide un pronunciamiento. Puede resultar peligroso porque entendemos por un lado que, flaco favor hace al propio Centro y más cuando las heridas por la decisión de la publicación del Liceo supuso para muchas familias, ya que también entre ellas hubo enfrentamientos. Una vez superado eso, volver a traer a esta mesa un texto que puede tener un planteamiento político, y las consecuencias e interpretaciones que los beasaindarras puedan hacer, teniendo todavía muy reciente lo que entonces ocurrió, y en el que el Pleno del Ayuntamiento no participó para nada en aquella decisión, consideramos que es abrir un melón un poco peligroso. Además de lo que pudiere afectar al nombre del Centro, está la incidencia que puede tener en el proyecto educativo que tiene el Centro. Nosotros lo tenemos claro, máxime cuando no tenemos ninguna competencia en educación que no sea la del mantenimiento de los centros. Reiteramos que puede resultar peligroso politizar un asunto que quizás precisa de mayores esfuerzos por ambas partes. Soy consciente de que tanto por parte de los responsables de la Administración en su momento como del propio Centro se habrán cometido muchos errores, pero no nos centremos en ellos y vayamos a ser objetivos, partiendo de la decisión que en su momento tomó el Centro en relación a la publicación y la inclusión en la red pública de centros educativos. Con independencia de que este texto se someta a votación, nuestra primera propuesta es votar la retirada de la moción, atendiendo a los argumentos que he planteado antes.”

Fernando Boada jaunak (EAJ): “El partido socialista quiere recordar que el 18 de agosto de 1998, el Liceo Alkartasuna se transforma en tres centros docentes públicos: Alkartasuna LHI, Alkartasuna DBHI y Alkartasuna BHI. Ante aquella situación el partido socialista en defensa de los principios apoyó la publicación y vió con esperanza la unificación de la enseñanza pública en Beasain, con el objeto de formar una gran red pública en el municipio. Si tenemos conocimiento en octubre del 2007, se hace una propuesta de criterios para la elaboración del mapa escolar de la comunidad autónoma del País Vasco y en él se marcaban los criterios y los plazos. Eso quiere decir que el parlamento mandata al departamento de educación, que en aquel momento estaba en manos de EA para llevar adelante el mapa escolar. El 12 de febrero de 2009, se publica el acuerdo aprobado en el Gobierno el 3 de febrero por el que se establecen los criterios de ordenación y de planificación de la red de docentes de enseñanza no universitarios en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Ahora acaba de salir el informe sobre la situación de enseñanza en Euskadi 2006-2008 del Consejo Escolar de Euskadi, que se ha aprobado el 28-01-2010 en el cual se marcan las pautas para ir elaborando el

nuevo diseño del mapa escolar y la distribución. Nosotros pensamos que es una entidad superior a la que le corresponde decidir el tema que hoy tratamos aquí. Por ello, nos sumamos a la propuesta que ha hecho Josi, de pedir que esta moción ni siquiera se llegue a votar. Quiero recordarle al Sr. Alcalde que lo que se recoge en el acta del pleno del 28 de febrero de 2008, esto es, “Fernando Boada recuerda que el período de matriculación está a punto de comenzar y pregunta si el Ayuntamiento va a ofrecer su colaboración al respecto. El Sr. Alcalde contesta: la competencia es del departamento de educación y nunca nos han solicitado nada en este sentido. No vamos a intervenir en eso. No queremos mezclar el debate político con este tema.”. Se ve claramente que una competencia que es del departamento de educación en la que muchos municipios sí se implicaban, el Ayuntamiento de Beasain no lo hizo argumentando que no quería politizar el tema. Sin embargo, ahora en una cuestión que compete al Departamento de Educación, no le importa implicarse hasta las zancas y traernos este tema al Ayuntamiento cuando pensamos que no debería de ser así, precisamente para no politizar el tema. Por lo tanto, nosotros nos adherimos a la propuesta que ha hecho Josi y si no, votaríamos en consecuencia.”

Alkatea jaunak (EAJ): “Gure aldetik gauza batzuk agertu. Alde batetik, Alkatea honek ohitura du herritarrak mozio bat aurkezteko eskatzen badute, beraiekin eztabaidatu ondoren, ateak irekitzea. Nik mozio hau aurkeztu dut, aukera hori emateko. Bestetik adierazi, gure eskumena ez dela hezkuntzaren planifikazioa. Mozio honetan ez da hori tratatzen. Bakarrik adierazten da kolektibo bat dagoela konpromiso batzuk hartu nahi dituen kontsentsua bilatzeko. Baita ere, gizartean edozein gai gatazka sortzen duena, Udalari dagokio eta Udala saiatzen da bide batetik edo bestetik bideratzen. Gure ustetan kasu ere horrela da. Guk ez dugu esaten mapa eskolarra nola izan behar duen. Hori horretarako eskuduntza dutenek erabakiko dute, baina Elkarte honi aukera eman behar zaio akordiotara iristeko, beraiek bait dira beraien seme-alabeen arduradunak. Toki guztietan kontsentsu hitza aipatzen dugu, baina tokatzen zaigunean, askotan muzin egiten dugu. Bestalde urte bete atzeratzea, ez du inolako eraginik mapa eskolarra garatzeko, datozen hiru urteetan bakarrik afektatuak izango direlako Elkartasuna Lizeoko gurasoak. Beste ikastetxeak ez bait dira ikutzen eta bitarte horretan badirudi baliabideak ez direla jarriko. Modu asko daude mapa eskolarra antolatzeke. Guk gure aldetik ikusten dugu, bidezkoa dela mozioa honi baiezkota ematea. Matrikulazioaren inguruko baremoak publikoak dira eta ikastetxe publikotaz ari garenez, dauden arauen arabera egin beharko dira.”

Andoni Antxia jaunak: “Urte bete erabakia hartzeko atzeratzea eskatzen da eta guk ez dugu horretarako inolako arazorik, baina ikastetxe horrek diru publikoa jasotzen duenez, denontzat berdina izan behar da.”

Alkartasuna Lizeoko Gurasoen Elkarteak, elkarriketari babesa ematea eskatzen du kontsentsua lortzeko, bere ustetan elkarriketaren bidez gauzak konpontzen direlako. Konponketa, gizarte-hausturarik gabe lortu nahi du, irabazle edota gaitzalerik gabe eta horretarako denbora behar dela adierazten du, baina ez beraien artean hitz egiteko, baizik eta Beasaingo eskola-komunitate guztiekin. Beasainen, hezkuntza arloan arazoak badaude, kontsentsuaren bidez konpondu behar direla dio. Iragana egungo egoera abiapuntutzat hartuta epaitzea arriskutsua dela esan du. Jarraian Josi Insaustiri galdetu dio ea bere ustetan, beste zein aukera dauden.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozkatu da ALKARBIDE eta PSOEk aurkeztutako proposamena, hau da, mozioa mahai gainean uztearena.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 7 (PSE-EE/PSOE, ALKARBIDE)

Aurkako botoak: 9 (EAJ, EB, PP)

Abstentzioak: 0

Etorri gabea: 1

Horren ondorioz, proposamena ez da onartu.

Aldez aurretik Alkateari hitza eskatuta, Josi Insausti jaunak ondorengo dio: “Al hilo de lo que se manifiesta en la moción, nosotros hacemos una contrapropuesta con un único punto que es: buscar el consenso a través del diálogo entre la Consejería de Educación y las comunidades escolares de la educación pública de Beasain.”

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Nosotros como preveíamos que esto iba a suceder, también teníamos preparada una contramoción, que es la siguiente:

“Beasaingo Udalaren Osoko Bilkurari:

Alkate jaunak Beasaingo Ikastetxe Publikoen bat egiteari buruz aurkeztutako mozioa dela eta, Zinegotzi Sozialisten taldeak ondorengo burutapenak eta proposamenak egin nahi ditugu:

Gogoratu Lizeo Alkartasuna 1998ko abuztuaren 18an hiru ikastetxe publiko bihurtu zela: CEP Alkartasuna LHI, Alkartasuna BBHI eta Alkartasuna BHI.

Egoera honen aurrean, Beasaingo Sozialista Alderdiak, bere printzipioak defendatuz, publikazio prozesu horren alde jarri zen eta itxaropenez ikusi zuen

Beasaingo hezkuntza publikoaren bat egitea, udalerrian sare publiko haundi bat sortzeko helburuarekin.

Administrazioak DBHko ikastetxeak bat egiteko hartu duen erabakia egokia eta ausarta iruditzen zaigu, Herriko ikastetxe publikoen arteko konpetentzia eta tentsio egoerak aldenitu behar dugu betirako eta eskola publiko indartsua, plurala,...sortu.

Arrazoi guzti hauengatik, Beasaingo PSE-EE (PSOE)ko zinegotzi taldeak, Udal Osoko Bilkurari haxe proposatzen dio:

1.- Administrazioak Beasaingo Eskola Mapa burutzeko eman dituen urratsen alde jarri.

2.- Administrazioari lan horrekin jarraitzeko eskatu eta Beasaing oikastetxe publikoetako estamentu guztiekin harremanetan jarritz, Eskola Mapa osatu Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza elkartuz.

3.- Udalaren erabakiaren berri, Gipuzkoako Hezkuntza Lurralde Ordezkaritza, Hezkuntza Sailburua baita Aratekoari ere jakin arazi."

Alkate jaunak (EAJ): "Nosotros vamos a mantener por respeto la moción que nos ha presentado."

Lehenik, Josi Insausti jaunak proposatutako testua bozkatu da:

Aldeko botoak: 2 (ALKARBIDE)
Aurkako botoak: 9 (EAJ, EB, PP)
Abstentzioak: 5 (PSE-EE/PSOE)
Etorri gabea: 1

Horren ondorioz, ez da onartu.

Jarraian bozkatu da, alderdi sozialistak aurkeztutako aurkako mozioa eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 5 (PSE-EE/PSOE)
Aurkako botoak: 9 (EAJ, EB, PP)
Abstentzioak: 2 (ALKARBIDE)
Etorri gabea: 1

Bukatzeko bozkatu da, Alkate jaunak aurkeztutako mozioa. Emaiza ondorengoa izan da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ, EB, PP)
Aurkako botoak: 5 (PSE-EE/PSOE)
Abstentzioak: 2 (ALKARBIDE)

Etorri gabea: 1

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu egin da Alkateak aurkeztutako mozioa, Beasaingo Eskola Publikoaren fusio-proposamenari buruz.

7.- ALKATETZAREN EBAZPENAK. 2010eko urtarrilaren 26tik otsailaren 22ra arte Alkateak emandako Ebazpenak.

Ezagutzera eman da, Alkateak 2010eko urtarrilaren 26tik otsailaren 22ra arte eman dituen Ebazpenak.

8.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

LICEO ALKARTASUNAKO KONPONKETAK

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Quisiéramos preguntar al Sr. Alcalde por qué no hace en el Liceo Alkartasuna las reparaciones que le corresponde hacer al Ayuntamiento en el centro de primaria, tal y como nos consta por un escrito recibido en la Delegación de Educación remitida por parte de la Dirección, en la cual se queja de la dejación de las obligaciones que al Ayuntamiento le corresponden.”

OLARANGO HITZARMENA

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Con fecha 22 de junio de 2009, este Ayuntamiento acordó suscribir un convenio con MANUFACTURAS OLARAN mediante el cual se adquiriría los siguientes compromisos: cesión del inmueble de la fábrica al Ayuntamiento y aportaciones económicas. Quisiéramos saber si a día de hoy si se ha materializado la referida cesión y se han abonado las cantidades comprometidas. Nos gustaría saber como está eso.”

KAMIOENTZAT APARKALEKUA

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): También nos gustaría saber con qué tiempo se había previsto la inauguración del aparcamiento de camiones de Zumadi, dado que a nosotros se nos notifica a las 9,00 horas del mismo día de la inauguración, prevista para las 11,00, sabiendo que todos tenemos cosas que hacer. No nos dió tiempo a estar presentes en el acto. Imagino que los que allí estaban, no se les avisó con esa premura de tiempo. En consecuencia, sabiendo que sei ba a inaugurar no se nos avisó con anterioridad.”

Alkate jaunak (EAJ): "Liceo Alkartasuna: Desde que se hizo el centro público, conviven prescolar (2-6), 6-12 y 12-16. Competencias del Ayuntamiento son las correspondientes a mantenimiento de 2 a 12. La Consejería de 12 a 16. Desde hace tiempo hasta el cambio de la nueva dirección, eso se ha llevado estrictamente. Nosotros aportábamos una cantidad y a cambio de esa cantidad que estaba tasada ellos se hacían cargo del mantenimiento. La nueva dirección desconocía el funcionamiento y hemos tenido varias reuniones para darles a conocer que lo que el Ayuntamiento ha pretendido es que los centros sean autónomos. Las cuatro lámparas que quedan por poner, ya saben a quien tienen que llamar."

Olaran. Es un tema difícil. Ayer a la mañana firmamos la escritura de cesión del pabellón. Nos cuesta hacer las cosas, pero estamos en ello.

Inauguración. Localizar a los camioneros y que estén disponibles es difícil. Pudimos acordar el jueves y en la página Web y en la prensa lo pusimos el viernes y por un despiste avisé a los miembros de la Junta de Gobierno Local a las 9,00 horas. La realidad es esa. Perdonad que el mismo día que mandamos a publicar en la página Web no os avisara. Precisamente ese día se sustituyó a la persona que hacía labores de secretaría de la Alcaldía."

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): "Hablando de despistes, vamos a seguir con ellos. En el pleno del mes pasado se hacían unas preguntas al Alcalde, sobre unos paneles de publicidad. Cuando preguntamos por qué estaban allí, el Alcalde respondió que por olvido y que entonces mismo avisaría al responsable para retirarlos. No sé si le ha olvidado al Alcalde o al responsable, pero el panel sigue en el mismo sitio."

Andoni Antxia jaunak: Erregu bat eta galderak.

Erregua: mesedez, bilera garaian mugikorrak itzaldtu. Errespeto falta bait da.

Galderak: anbulategiko biribulgunean eguerdian eta arratsaldean arazoak sortzen dira. Zein da irtenbidea?

AHTko obrak direla eta lau baserritara kamioiak igotzen dira. Jakin nahi genuke noiz arte jarraituko duten kamioiak hortik pasatzen.

Kale Nagusia oineztatzea dela eta zein da prebisioa obrak bukatzeko.

Alkatea jaunak (EAJ): "Herriko trafikotaz pentsatzen ari gara, baina ez dakigu asmatuko dugun ala ez. KUTXAren inguruan, hortik jeitsi beharrean geltokitik jeitsiko balitz gutxitu egingo litzateke trafikoa. Seinaleak preparatzen

ari gara. Zumarraga-Ormaiztegitik datozenak eta Ordizira doazenak herritik pasatzeko ohitura dute eta seinale bat jarriko dugu hori horrela ez izateko. Hori ez da nahikoa izango. Denok dakigu zein non dagoen arazoa. Hor daukagu etxebizitza bat 68 bizilagunekin, baina lehentasuna nori eman behar diogun pentsatu egin beharko dugu. Guk badakigu hori kenduta askoz errazagoa izango litzatekeela, baina aurren abeste ahalegin horiek egin behar ditugu.

AHT. Abenduan amaitu behar zuten, baina badakizu zein giro izan dugun. Giroa normalizatzen joaten bada, hemendik hilabetera pista irekita egongo da eta handik sartuko da materiala. Tunel horretatik ez da materialaren laurdena ere atera.

Kale Nagusiko obrak. Badakigu horrelako obrak sortzen dituzten enbarazoak eta saiatzeko gara arazo horiek gutxitzen. Aurreikusita dago maiatzeko amaituko dela. Epeari buruzko aldaketaren bat izanez gero, abisatuko dugu.

Eta tratatzeko besterik ezean bilera, goizeko hamarrak eta laurdenetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.